

LITERATURA BALIABIDEAK

BALIABIDE FONIKOAK

Izena	Definizioa	Adibidea
Aliterazioa*	Pareko soinuen errepikapena.	“Troka txoko txikian kutxatxo itxia”
Onomatopeia*	Soinu naturalen imitazioa.	“dzazt”
Similikadentzia***	Esaldi batean edo esaldi-segida batean atzizki edota deklinabide berbera, edo antzeko soinua duten hitzak elkarren ondoan jartzea.	“...iluna jantzi zuen, kapa bat bezain luzea eta leuna, beruna eta ahula.”
Kalanburra**	Jarraian doazen hitzen silabak lotuz edo hitz bat zatituz hitz berriak sortzea.	“...esperantzaren bustia / ur hatsak / urratsak...” (Itxaro Borda)

BALIABIDE MORFOSINTAKTIKOAK

Anafora**	Esaldien hasieran, hitz(en) errepikapena.	“Kantetan, horra hor txoritxoak / kantetan, horra hor bildotzak / kantetan, negua joan dela...” (F.Arrese Beitia)
Epifora**	Esaldiaren bukaeran, hitz(en)errepikapena.	“Non dira...? Hil ziran. Nola zeuden...? Hil ziran
Epanadiplosia**	Hitz bera bertso-lerro baten hasieran eta bukaeran jartzea.	“Oroitu nahi zaitut, oroitu...” (Migel Anjel Unanua)
Anadiplosia**	Hitz bera bertso-lerro baten bukaeran eta hurrengoaren hasieran jartzea.	“...aire bat entzun nuen itsasoko aldetik / itsasoko aldetik untzian kantaturik.” (Herrikoia)
Paralelismoa***	Sintaxi-egiturak, ideiak, soinuak, e.a.errepikatzea.	“... ertzagabeko itsasora, / aparrik gabeko hondartzara / bustidura gabeko uhainetara / hondar gabeko eremura...” (Patxi Ezkiaga)
Hiperbatona*	Perpausen osagaiak ordenaz aldatzea.	“...bainan ea txalo bat / diguzuen ematen.” (Antonio Maria Labaien)
Polisindetona**	Juntagailuen aniztasuna.	“Bide txikiago bat ere badago eta gero ibaia eta gero arrainak eta txalupa asko” (Bernardo Atxaga)
Asindetona**	Juntagailuen falta.	“... gorroto, bekaitz, harrokeri, / lizunkeriak gorazarre; / gerra heriotz, lapurreta...” (Nemesio Etxaniz)
Enumerazioa*	Kategoria gramatikal bereko hitzen errepikapena.	“Zeru, lur, egurats, gizon / nigana dut...” (Orixe)
Eratorketa**	Erro bereko hitzak perpau berean kateatzea.	“Sorginen sorginkeriek sorginduta zeuden”

BALIABIDE SEMANTIKOAK

Hitz-jokoa**	Formaz antzekoak diren hitzak elkarren ondoan jartzea, efektu desberdinak sortuz; adibidez, kontrastea.	“...apatzen ditu tximeletak / loreak aupatuaz / apatuz...” (Andoni Salamero)
Apostrofea***	Izaki bizidun eta ez-bizidunei hitz egitea.	“Gaua, zu zoaz / lertxunen zadorrak / mamiki gordetuz...”
Epitetoa***	Informazio berririk ez dakarren izenondoa.	“gau iluna”
Konparazioa*	Ekintzak, gertaerak...elkarren artean parekatzea.	“Irribarrea ilgora bezalakoa zen”
Metafora*	Bi elementu ditugu: erreala eta irudizkoa. Bien arteko antzekotasuna argia da, eta irudizkoak erreala ordezkatu du.	“Zure ilearen hegalekin lastandu ninduzun”
Metonimia***	Bi elementu ditugu: erreala eta irudizkoa. Bien artean ez dago antzekotasunik; beste era bateko erlazioa izango dute (kausa-ondorioa, objektu-erabilpena...). Kasu honetan ere irudizkoak erreala ordezkatu du.	“ene desirak habia abandonatuak”
Sinestesia*	Sentimen eredu batetik bestera esanahiren bat aldatzea da.	“hitz epelak”
Sinonimia**	Esanahi bera edo parekoa duten hitz edo esaldi elkarren atzetik jartzea.	“indarge, ahul, makal, belaska...”
Antitesia**	Kontrastea, aurkako esanahia duten ideiak.	“Jai goibela”
Hiperbolea*	Exagerazioa, neurri logikoa gaindituz.	“Mihi kilometrikoa”
Pertsonifikazioa*	Pertsonak ez direnei pertsonen ezaugarriak ematea.	“Gaua lotan dago”